



Nork egingo du orain?

ELKARRI 1992ko abenduan sortu zen eta ilusioa ekarri zuen euskal gizarteko sektore zabaletara, batez ere ezker abertzalearen baitara. Bost urte lehenago sinatutako Ajuria Eneko Ituna bere eragina izaten ari zen gizartearen: ezker abertzalea politikoki eta sozialki baztertzea zen itunaren helburu nagusia eta isolamenduaren zirimiria esparru sozial hori blai utzi zuen apurka, ia oharkabean.

Ezker abertzaleak indartsu ikusten zuen bere burua 80ko hamarkadaren amaieran eta nekez irudika zezakeen Estatuaren eta gainerako indar politikoen presioa horren eraginkorra izango zenik. Erresistentzia irabaztea zen orduan. Hamarkada bat geroago iritsiko zen ilegalizazioaren zutoinak ere sasoi hartan finkatu ziren.

Testuinguru horretan sortu zen Elkarrri, elkarrizketaren eta akordioaren aldeko gizarte mugimendua. Hilabete gutxitan berehala irudikatu zen haren eginbeharra ez zela txantxetakoia izango. Giro hartan, gizarte mailan hain ahul ziren elkarrizketa eta akordio politikoaren kultura sustatzea basamortura ureztontziarekin abiatzea zen. Baina tanta han tanta hemen, gatazka politiko bat bideratzeko elkarrizketaren eskaera gizarte aldarrikapen bihurtu zen apurka. Gaurdaino iraun du.

ETAk 1993an bahitu zuen Julio Iglesias Zamora eta Bakearen Aldeko Koordinadorak lazo urdina atera zuen kalera bahiketa arbuiatzeko. Lazo urdina eta ezker abertzaleak bultzatutako “Bai Euskal Herriari” kanpainak aurrez aurre egin zuten Euskal Herriko kaleetan, manifestazio eta kontra-manifestazio itxuran.



ETAk 1993an bahitu zuen Julio Iglesias Zamora eta BAKek lazo urdina atera zuen kalera

Enfrentamendu testuinguru horretan egin zituen lehen urratsak Elkarrri: abertzaletasunaren mundutik sortua, ezker abertzaleko jende asko bildu zuen, baina ezker abertzaleko egiturekin gero eta harreman tirabiratsuagoa izango zuen. Ajuria Eneko Itunaren erabateko mesfidantza ere bazuen: ezker abertzalearen aurpegi atsegina zen haren begietara. Bake konferentzia han, akordioa hemen eta zubigintzaren ingeniartzan ondo koipeztua, elkarrizketa eta bake prozesuaren ideiak gaur eguneraino ekartzeko garrantzitsua izan zen Elkarrri. 2006an desagertu zen, bere helburu gorena bete barik, etsipen

usainean, baina azken kartutxoak erre gabe oraindik.

LOKARRI zen azken kartutxo hori eta Jonan Fernandez eta Victor Aierdiren itzalean hezitako Paul Rios ezezagun bat barku berriaren gidaria. Lau txakur handi ere ez ziren ordaintzen haren etorkizunagatik. Bitartekoetan txikira besterik jokatu ezin zuenak, handira jardun gura zuen helburutan, Elkarrik han-hemenka utzitako herritar multzo txikiak. Gehiegi.

Zerbait alde bazuen, ordea, mugimendu berriak: Loiolako porrotaren errautsetan piztu izana eta Elkarriren bitartekaritza sare osoa eskueran izatea. Zorte pixka bat ere izan zuen, tematzeak une klabeetan behar zen lekuan egotea ekarri ziolako geroxeago.

Akordioaren, kontsultaren eta berradiskidetzaren aldeko herritarren sare gisa definitu zuen Lokarririk bere burua. Pozik utziko du bere jarduna orain, helburua lortu delakoan. Eta asko lortu da, ETAk amore ematean, gatazka armatuaren fasea amaitu delako euskal gizartearen. Hori bai, aldebakartasunez. Estatuak ilegalizazioen amaiera besterik ez du onartu, 1988an Ajuria Eneko Ituna egin zenean ezker abertzaleak zuen jardun politikorako estatus bera. Ituna bultzatu zutenen asmoen kontrara, aldiz, gatazka armatuaren logikan garaitua izan den mugimendu politiko zabala indartua atera da bere zokoratzetik.

Akordioa, kontsulta eta berradiskidetzaren urrats handiak behar dira oraindik. Gizarte mailan, nor borrokatuko da horien alde orain? ■